

MARISOL GARMENDIAK SAGUESEKO ITSASERTZAREN ERREMATEAN HARMAILA MAILAKATU BAT PROPOSATU DU

Donostiaren hiri-berroneratzea eta espazio publikoak berreskuratzea da Donostiako Sozialistek defendatzen duten hauteskunde-programaren helburuetako bat. Horren adibide da Marisol Garmendia alkategaiak Sagueseko itsasertza errematatzeke egin duen proposamena, espazio publiko balioaniztun baten bidez, non herritarrek esertzeko eta espazioaz gozatzeko aukera izango duten. «Eraikinik gabeko espazio publiko handi batean pentsatzen ari gara, Aste Nagusiko kontzertuak, erakusketak eta edozein motatako jolas-jarduerak har ditzakeena», adierazi du Garmendiak.

Sagueseko zabalgunean bertan egindako ekitaldi batean, Marisol Garmendiak bere proposamena aurkeztu du. Proposamen horretan, Ulia menditik hurbilen dagoen eremuan, Peña Ganchequiren plataforma mailakatuarekin hitz egiten duen eremu mailakatu bat dago, Haizearen Orraziaren multzoan.

«Itsasertzaren mutur hau espazio publiko handi bihurtzea nahi dugu, atsedean hartzeko, liburu bat irakurtzeko edo itsasoari begiratzeko», adierazi du Garmendiak. Gainera, inguruaren bulebarizazioa proposatzen dugu, Sagueseko etxeen aurrean zuhaitzak jarritz, oinezkoentzako hobekuntzak eginez eta, ostalaritzako terrazak, lorategiak eta haurrentzako jolas berriak hobeto kokatuz.

Espazio publikoa biziberritzeko proiektu horrek bat egiten du Donostiako Sozialisten beste proposamen batzuekin, hala nola Topoaren bideak lurperatu ondoren Easo-Errondon sortuko den plaza handiarekin, Arabako eta Menchu Galeko parkeak lotuko dituenak; AHT geltokiaren eta Tabakaleraren aurreko plaza publikoarekin, edo Martuteneko biribilgune berriarekin, gasolindegia eta garbiketa-geltokia erabat kenduz.